

# noaua

**Auzokonpostarako gune berria,  
anbulatorio ondoan**

**Igande honetan,  
Baxurde Krossa**

**Jaien atarian dira  
Santuenean**

**Larunbat honetan inauguratuko da  
Udarregi ikastolaren eraikin berria**



**OGI BERRI**  
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...  
IKUSI FUTBOL  
PARTIDUAK  
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)  
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



**antenas  
Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.  
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tifnoa. 943 55 33 99  
info@antenastelemar.com






*%100 bertako sagarra*

**ONDO PASA  
JAETAN!**

*Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!*



**AIALDE  
BERRI**

**SAGARDOTEGIA**

Santuenea,  
Telf: 943 36 50 31

**Hamaika**  
Ikusteko, bizitzeko

**ZUREA GURE,  
GUREA ZURE**



**ikusteko**  
www.hamaika.tv

LTD nahiz Euskaltel (11 eta 911. kanalak) YouTube Twitter Facebook

## Albiste iruditan

# Auzokonpostarako gune berri bat

**A**uzokonpostarako gune berri bat izango du laster Usurbilek; Udalak anbulatorio ondoan ireki nahi duena, Galtzaraña, Munalurra eta Puntapax kaleetako bizilagunentzat. Erabiltzaile izan nahi dutenentzako oharra; beharrezko informazio eta argibideetarako bilera deitu dute Usurbilgo Udalak eta Usurbil Zero Zaborrek larunbat honetarako, irailaren 20rako, eguerdiko 12:00etan, udaletxe ondoan dagoen konpostagunean.

"Konpostatzeko jarraibideak eta formazioa ere emango dira bileran bertan. Izena emateko aukera ere izango da. Gogoratu konposta egiten dutenek ingurumenari fabore bat egiten diotela, eta hondakin tasa txikiagoa ordaintzen dutela", gogorarazi dute bilera deitu dutenek. Zehaztasun gehiago nahi dituenak, 650 374 936 telefono zenbakira deitu dezake, edo usurbilzerozabor@gmail.com helbidera email bat idatzi.



Galtzaraña, Munalurra eta Puntapaxeko bizilagunei zuzendua dago.

## Laburrean

### Egunkariaren auzi ekonomikoko epaiketa

Ostiral honetan erabakiko dute epaileek epaiketa egin edo ez. Bezperan, irailaren 18an, elkarretaratzea deitu dute goizeko 11:30etik aurrera, Donostiako Auzitegiaren atarian. Kasuan 8 lagun daude auzipetuak, Joan Mari Torrealdei herritarra tartean. Fiskaltzak guztira, 128 urteko kartzela zigorra eta 221 milioi euroko isuna eskatzen du zortzi lagunontzat.

### Ahalduntze ikastaro berria

Udaleko Parekidetasun Sailak antolatu du "Krisia eta doluen aurrean ahalduntzea" izeneko ikastaroa, irailaren 25etik abenduaren 18ra. Ostegun arratsaldero, 17:30etik 19:30era Bake Epaitegi atzealdeko lokalean, Pepa Bojo psikologoaren eskutik. Doan eman daiteke izena irailaren 22ra arte, Parekidetasun Sailean; 943 377 110 / parekidetasuna@usurbil.net

### Bi enpresari atxilotu dituzte

Piper bilketan langileak ustez irregulartasun egoeran izateagatik, Usurbil eta Aginagako enpresari bana atxilotu dituzte. Gipuzkoako bost enpresarientzat lanean ziharduten 58 lagun identifikatu dituzte. Hauetatik 24 lagun lan kontratu gabe ziren, eta Gizarte Segurantzaren alta eman gabe. Isunak jartzeaz gain, ikerketa bat abiatu dute.

# noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noqua.com // www.noqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordintzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Arantxa Zulaika,

publizitatea@noqua.com

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzio@noqua.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

## Kolperik ez den bitartean

**B**aten batzuk izango ginen joan den ostegunean telebistaren edo ordenagailuaren aurrean Kataluniako Diadan egindako V erraldi hari begira. Inbidiaz begira. Eta errazagoa iruditu arren guztiak Bartzelonan elkartu direlako, aurreko Diadan egindako giza kateak baino antolaketa lan gehiago eman omen die V-a antolatzeak. Udaltzaingoak 1.800.000 lagun kontatu zituen! Niri, behintzat, izugarria, ikusgarria egiten zait hainbeste jende elkarrekin ikustea, guztiak partekatzen duten herrialdearen independentziaren alde, etorkizun hobe bat eraiki gozoz. Izugarria da.

Ekainaren 8az gogoratu nintzen, katean jarrita ibilbideko beste zenbait puntutan nire lagunak,

senideak, ikaskideak, lankideak ere eskuak emanda egongo zirela pentsatu nuela; nolabait, ni ere haiei eskuak emanda nengoela. Momentu hungigarria, alaia... Eta etxerakoan, euforia, euforia izugarria irudiak telebistan ikustean, hurrengo eguneko egunkariak irakurtzean. Eta jakitea ez nintzela izan bakarria, milaka eta milaka lagunak izan genuela sentipen bera; katera joan ala ez. Ederra egin genuen!

Pentsatzen jartzen naiz hasi besterik ez dugula egin ibilbidea Euskal Herrian. Zer etorriko da hurrena? Laster argituko dira gauzak, edo argitzen hasiko dira, behinik behin, pixkanaka. Hilaren 27an hitzordua deitu du Gure Esku Dagok Arrasaten: udan herriko batzordeetatik jasotako orri zuri guztiek markatu du-

ten bide posiblea ezagutuko dugu, eta horietatik abiatuta zein jarraitu nahi dugun, zein pausu eman nahi ditugun erabakiko dugu.

Denborek ematen didate beldur pixka bat. Esan nahi baita, guztiok ez dugula abiadura bera jasaten: batzuek bertigo pixka bat senti dezaketela martxak azkarregi aldatzera behartuak badira, edo hala izan direla sentitzen badute. Eta, alderantziz, noski. Frustrazioak sortuko dira, ziur aski, baina ahalik eta gutxien izatea zaindu beharko da, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidearen alde ahalik eta indar gehien metatu behar baitugu. Katalunian hartutako abiada guk inoiz hartuko badugu, benetan ondo egin beharko ditugu aurretikako lan guztiak.

Eta pentsatzen jartzen naiz zeinen errazak diruditen batzuetan gauzek Katalunian; eta zeinen zailak ematen duten hemen. Nola, hemen, nahiz eta (ustez) bat egiten dugun kontuetan ere mokoka gabiltzan geure artean; nola Madriletik kolpe latzik etortzen ez den bitartean ez garen benetan elkartzten; gogora dezagun urtarreko manifestazioa Bilbon. Nik oraindik ez dut ahaztu prentsaurreko hori. Prentsaurrekoaren amaieran hitza hartu zuen ETBko kazetariak nola ezin zuen irribarrea ahotik kendu.

Zer gertatuko da datorren urtarreko manifestazioan? Berrito ere elkarrekin aterako al gara kalera? Edo beste kolpe latzik etortzen ez den bitartean mokoka jarraituko dugu?

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Maialen Unanue** | Luis Aranalde | Idoia Torregerai | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

## Dantza Taldeak egoitza berri bat izango du

**I**kasturte berrian egoitza berria Usurbil Dantza Taldekoentzat. Aurrerantzean, Oiardo Kiroldegian kokatuko da dantza zaleen bilgunea. Leku aldaketa betean diren honetan zabaldu dute bestalde, 2014-15 ikasturte berrirako izen ematea.

Apuntatzeko idatzi email bat, dantzataldea@usurbil.com helbidera. Dantzariaren izen abizenak

eta taldea zehaztu, maila haurren kasuan. Izen emateko beste modu bat, antolatzaileengana jotzea. Bi egunotan eman ahalko da izena, Dantza Taldekoen egoitza berrian, Kiroldegi sarrera ondoan, eskuin aldera sartuta; irailaren 19an eta 24an, 17:00-19:30 artean.

### Taldeak eta ordutegiak

Irailaren 29an abiatuko dute ikastur-

te berria, Usurbil Dantza Taldekoek. Dantza garaikideko kideak izan ezik, irailaren 15az geroztik martxan baitira. Denboraldi berrirako duten eskaintza ikusita, argi dago; Usurbilgo dantza mugimendua indartzen ari da. Hona hemen sortu asmo dituzten taldeak eta entsegu saioen ordutegiak:

-Haurren dantza taldea: entsegu saio eguna finkatzeko, bilera irailaren 26an, 18:00etan Oiardo Kirold-

giko entsegu saioan.

-Dantza garaikidea: astelehenetan 19:30-21:00 (Udarregiko erdiko aretoan).

-Erromeria taldea: asteazkenetan 19:30-21:00 (Udarregiko erdiko aretoan).

-Dantza talde tradizionala: apuntatutakoaren artean zehaztuko da ordutegia.

-Saloi dantzak: apuntatutakoaren artean zehaztuko da ordutegia.

Zuen  
publizitatea  
hemen

© 943 360 321  
publizitatea@noaua.com

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

**ALDAMU**

KONPONKETAK

KALE NAÑUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

## EPA-n matrikulatzeko aukera zabalik



Ingeleseko mintza praktikan parte hartu, informatika klaseak jaso, DBHko titulua jaso...  
Eskaintza zabala da Helduen Hezkuntza Eskolak egiten duena.

18 urtetik gorako Usurbilgo Helduen Hezkuntza eskoletan parte hartzeko, izen emateko epea zabalduta dute. Besteak beste, DBHko titulua eskuratu, informatika klaseak

jaso edota ingeleseko mintza praktika saioetan parte hartu daitezke. Argibide gehiagorako: 943 366 608 telefono zenbakian edo epalasarre.es posta elektronikokoaren bidez.

### Tomas eta Arantxa pailazoak Santuenean

Irailaren 26an ostirala, Tomas eta Arantxa pailazoak emanaldia eskainiko dute Santueneko frontoian. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da ikuskizuna, eta ondoren txokolata banatuko da. Pailazoaren web orrian irakurri dugunez, "Mendizaleak" izeneko ikuskizuna eskainiko dute. "Mendira joango dira. Perretxiko batzuk bildu ondoren, tontorrera abiatuko dira makila hartuta". 4 urtetik aurrerako umeei zuzendua, ordubeteko iraupena du ikuskizunak.



Irailaren 26an ostirala, Santueneko frontoian.

### Matrikulazioa zabalik euskaltegian

"Euskara praktikoa" lemapean, euskara ikastera animatzen dute Etumeta-AEK euskaltegitik. Hauxe ikasturte berrirako eskaintza: euskalduntze ikastaroak, autoikaskuntza, Mintzalagun... Izen emateko eta informazio gehiago euskaltegian: Astelehenetik ostiralera, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

Kale Nagusia, 43  
607 609 379.

usurbil@aek.org

munnteri.blogspot.com.es.



Etumeta-AEK euskaltegian eman daitezke izena.

### 1972koen kinto bazkaria

Urriaren 11n, Aginaga sagardotegian bilduko dira. Izen emateko epea, irailaren 30era arte zabalik. Prezioa, 40 euro. Ordainketak kontu zenbaki honetan egin behar dira: 0182 6043 21 0201514132 (BBVA). Ordainketak egite-rakoan izen abizenak adierazi. Argibide gehiagorako: 687 858 477 (Joxemi).

### 1946koen kinto bazkaria

Urriaren 5ean, Antxeta jatetxean. Izen emateko epea zabalik, irailaren 27ra arte, Laurok liburu dendan edo 943 363 448 telefono zenbakira deituta. "Anima-tu!", luzatu dute gonbita antolatzaileek.

### 80 urtekoei omenaldia

Lehenbizi, aurten 80 urte betetzen dituzten bazkideak omenduko dira 12:00etako mezan. Hil direnak ere gogoratuko dituzte. Eta ondoren, 14:00etan bazkaria. Gure Pakeako bulegoan eskura daitezke txartela; 35 eurotan. Ordainketak bi kontu zenbaki hauetako batean egin:

Euskadiko Kutxa: 3035014031 1401018416.

Kutxabank: 2095 5069 04 1060905378.

### Emilio Lopez Adanen hitzaldia gaztetxean

"Biolentzia politikoaren memoriak" so-lasaldia, ostiral honetan, irailaren 19an, 18:00etatik aurrera Usurbilgo Gazte-txean, Emilio Lopez Adanekin.

### Dantza mandingeak

Afrikar dantza mandingeen ikastaroa urritik aurrera, asteazken arratsalde-tan, 19:00etatik 21:00etara Usurbilgo Gaztetxean. Irakaslea: Pierre Cece Koly Camara. Prezioa, hilean 28 euro. Izena emateko deitu: 627 285 904 / usurbilgogaztetxea@gmail.com.

Ikastaroko ordutegia behin behinekoa da, behin betiko ordutegia talde kideen artean erabakiko da.

### Kantu Taldea, martxan

Irailaren 23tik aurrera, asteartero bilduko dira 18:30etatik aurrera Udarregi Ikastolan. Ikasturteko lehen kantu-jira berriz, Argia Egunarekin egokituko den iraileko azken larunbatean, hilaren 27an. Arratsaldeko 19:00etan, Mikel La-boa plazatik abiatuta.

# Etorkizuneko Usurbil,

Martxan da parte hartze prozesua, eta urriaren 9ra arte luzatuko da

Usurbilgo Udalak abiatu berri den parte hartze prozesura deitzen ditu herritarrek. Hausnartzera, proposatzera, ekarpenak egitera deitu zituen Mertxe Aizpurua alkateak, Usurbilgo Hiria Antolatzeko Plan Orokorrari lotuta, irailaren 9an Sutegin abiatu zen parte hartze prozesu berriko aurkezpen bileran. "Usurbildarrok dugu hitza", gogorarazi zuen alkateak.

Etorkizuneko herria eraiki nahi du Udalak, Usurbildik eta usurbildarrek elkarlanean. Etorkizuneko herri hori diseinatzeko hasteko oinarria finkatuko da, abiatu berri den prozesu honetan. Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren zeregina horixe baita; "herriko eremu publikoak eta pribatuak antolatzea datozen 8-10 urteotarako". Eremu publiko gisa ulertu behar ditugu, kale, parke edota plazak, espazio publikoak alegia; liburutegi, kiroldegi edota ikastola, herri ekipamenduak; mendi publikoa, mugikortasuna... Eremu pribatuaren baitan sartzen dira, etxebizitza, lantegi edo lursail pribatuak.

Gaiak duen begi bistako garrantziaz jabetzeko, alkateak Sutegin adierazitakoa: "Benetako garrantzia du, herriaren norabidea finkatuko baitugu. Orain erabakiko dugunak gure eta datozen belaunaldiak baldintzatuko ditu". Usurbilgo herriaren itxura, herritarren bizimodua eta elkarbizitza eredu marraztuko dira besteak beste, datozen hilabete hauetan. Usurbil, datorren herria diseinatzeko hastera doa.



"Benetako garrantzia du, herriaren norabidea finkatuko baitugu", adierazi zuen alkateak Sutegin aurkezpenean.

## ETORKIZUNA LANTZEN

**"Plan Orokorraren zeregina horixe da; herriko eremu publikoak eta pribatuak antolatzea datozen 8-10 urteotarako"**

### Etzetik, eta etxekoekin elkarlanean

Udalak modu desberdin batean kudeatu nahi du gaia. Duen garrantziaz jabetuta, gobernu taldeak ohikoa den prozeduratik desbideratu nahi izan du; hau da, ez dute enpresa bat kontratatu nahi izan

herri honen etorkizunerako garrantzi izugarria izango duen gai hau kudeatzen laguntzeko, baizik eta lan taldea indartu nahi izan du. Horretarako, Jone Miner arkitektoa eta parte hartze prozesuetan aditua eta antzeko zereginetan Usurbilen lanean aritu izan den Nicola Foroni kontratatu dituzte. Usurbildik usurbildarrentzat lan egiteko. Mertxe Aizpurua alkatearekin batera, Minerrek eta Foronik parte hartze prozesu berri honen ardatzak azaldu zituzten irailaren 9an, Sutegira bertaraturiko herritarren aurrean.

Plan orokorrari loturiko gaia, bestelako modu batean lantzeko Udalak egin duen apustuaren beste bereizgarrietako bat; ohiko bideeta-

tik jo izan balute, herritarren parte hartzea, orain lantzen hasiko den dokumentua jendaurrean ikusgai jarri eta epe zehatz baten baitan, alegazioak aurkeztu ahal izatera mugatua egongo zen.

### Urriaren 9ra arte, 16 saio egingo dira guztira

Oraingoan ordea, gaia herrian eta herritarrekin batera lantzeko hautua egin du Udalak eta hortik dator, aurreko astetik abian den parte hartze prozesu berria. Gaia, zonaldeka edota adin tarte ezberdinei zuzendua egongo den bilera sorta deitu du Udalak, orain hasi eta urriaren 9ra arte. 16 saio guztira.

**ARRANDEGIA PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax: 943300045

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK

645417665  
XABIER  
Usurbil

# herritarren esku

## 2004koa eguneratzera

Aurrerapen dokumentu bat du Plan Orokor batek. Aurrerapen dokumentu horren baitan idazten da gero, hiria antolatzeko plan orokorra. "Orain lantzen hasiko gara, aurrerapen dokumentua izango da, gero plana erredaktatzeko oinarria izango dena", jakinarazi zuen alkateak Sutegiko bileran.

Aizpuruak aipatzen zuenez, egun indarrean dugun planeamendua zaharkitua geratu da. Indarrean dauden Arau Subsidiarioak duela hamar urtekoak dira. Aldiz, "gaur egungo Usurbilgo beharrak ez dira 2004an zeudenak. Zaharkituta geratu den tresna bat da. Horri aurre egiteko plan orokorra beharrezkoa dugu". Eta horixe da, abiatu berri den parte hartze prozesu honekin landu nahi dena. Hasteko, Udalak egun indarrean dugun planeamenduaren inguruko diagnosa egin du. Hurrengo asteotan, diagnosi horren gainean iritzia eman edota ekarpenak egiteko aukera izango dute herritarrek.

## Auzoka eta gaikako bilketak

Aurreko asteko aurkezpen bilera-ekin abiatu da, hilabetez luzatuko den parte hartze prozesu honen lehen fasea. Bilera gehiago datozen asteotan. Gaika, auzoka eta adin tarte desberdinei zuzenduriko lan saioak izango dira. Saio dinamikoak eta parte hartzaileak, prozesua bideratzeaz arduratuko den aditu Nicola Foronik irailaren 9an Sutegin adierazi zuenez. Herritarrek informazioa jaso eta Udaletik planteatuko dira.



Irailaren 9an egin zen lehen bilera, Sutegin. Gainontzeko deialdiak ere zehaztuak daude.

turikoaren aurrean iritzia eman edo ekarpenak egiteko aukera izango dute. Aholkulari, teknikari eta udal ordezkari talde bat egongo da bileretan.

Orain hasi eta urriaren 9ra arte luzatuko da parte hartze prozesu honen lehen fasea. 2015ean jarraipena izango du. Orain, aurrerapen dokumentua da landuko da. Lehen-bizi, herritarrek Udalak aurkezturiko diagnosiari egin ahalko dizkiote ekarpenak. Datozen asteotarako iragarri diren 16 bileretan izango da. Hortik, Udalak asteotan herritarrek eginiko proposamen eta ateratako ondorioak bilduko ditu. Parte hartze prozesuaren bigarren fasea, hasierako dokumentua idazten denean zabalduko da. 2015ean. Bigarren fase horretan, Usurbilgo hiria antolatzeko plana idazteko erabiliko diren irizpide eta helburuak zehaztuko dira.

## Egutegia

Oraingora itzulita, aipatu moduan 16 lan saio deitu ditu Udalak urriaren 9ra bitarte. Bilera sorta honi, aste honetan zehar, 6-16 urte arteko ikasleekin egingo den lanketa berezia gaineratu behar zaie. Aginagan eta herri gunean burutu dira lehen saioak. Datozen hitzorduen egutegia segidan:

**Irailak 18-19:** 6-16 urte arteko haur eta gaztetxoekin lanketa berezia.

**Irailak 18/urriak 2:** Zubietako Kaxkapen.

**Irailak 22/urriak 6:** Mugikortasuna eta ingurumen gaiak jorratzeko bilerak Potxoenean.

**Irailak 23/urriak 7:** Jarduera ekonomikoak, komertzioa eta nekazaritza gaiak jorratzeko bilerak Potxoenean.

**Irailak 24/urriak 8:** Ekipamen-

duak, zerbitzuak eta azpiegitura gaiak jorratzeko bilerak Potxoenean.

**Irailak 25/urriak 9:** lurralde antolaketa hizpide dituzten bilerak Potxoenean.

**Irailak 29:** Aginagako ludotekan.

**Urriak 1:** herriguneko bilerak Artzabalena (erdaraz).

**Urriak 4:** herriguneko bilerak, Potxoenean (euskaraz).

## Bileren ordutegia

Bileren ordutegia: 19:00 (urriaren 4ko bilera ezik, goizeko 10:00etan izango baita).

## Informazio gehiago

Gai honi buruzko informazio zabaldua, parte hartze prozesurako hautaturiko leloa baliatuz, Usurbilgo Udalak martxan jarri duen web orrialde berri honetan: [usurbilgora.com](http://usurbilgora.com)

## “Jaioterri anitzeko herri bakarra osatzen dugu”

Aukeran, goizegi iragarri zen Herri Anitza festaren hasiera. Arratsaldeko 17:30ean jende gutxi zebilen frontoi aldean. 18:00ak aldera hasi zen jendea batzen. Herrialde ezberdinetako dastagaiak banatzen ziren bitartean, Mertxe Aizpurua alkateak eta

Martin Garitano Gipuzkoako Ahal-dun Nagusiak hitza hartu zuten. Elkar ezagutzak aberastu egiten gaituela adierazi zuen alkateak: "Guztiok gara usurbildarrak eta guztiok usurbildar bezala eskubide osoak eta betebeharrak ditugu", adierazi zuen.

"Jaioterri anitzeko herri bakarra osatzen dugu", hori azpimarratu zuen Martin Garitanok. "Inportantzia gutxien duena da non jaiotza garen, inportanteena da pertsonak non egiten duen bere bizitza, non lantzen duen bere etorkizuna".



Festari buruzko hainbat bideo ikusgai daude [noaua.com](http://noaua.com) web orrian.



## AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

### Soziedadeko zuzendaritza berria

**A**rgazki honetan ez daude guztiak baina zuzendaritza berria per-tsona hauek osatzen dute: lehendakari eta buru Joxe Mari Eizagirre "Aldapa", Miguel Angel Bereziartua, Jesus Mari Manzidor, Nekane Pikabea, Erramun Pikabea eta Antton Belokik. Astean behin bil-tzen dira, asteartean normalean. 6ak aldera elkartzen omen dira eta astero lan berdina izaten dituzte, lehenik bazkideen kontuak kontrolatzea eta ondoren bodegako lanak egitea. Lan hori guztia aspergarria suertatzen zaie baina ondoren etortzen omen da onena, afari goxoa. Sukaldean ere lehendakaria beti lehendakari. Beraien kargu hartzea bi urterako izango da eta ze helburu dituzten galdetu dudanean, denek berdina erantzun didate, alegia dirurik ez dagoela elkarteetan. Beraz ezin ezer asko egin, nahiz eta jakin elkarteak hainbat eraberritze lan behar dituela, nola aldatu den gure Aginaga... Hala ere ezin elkarte zoriondu gabe utzi, 50 urte betetzen dituen honetan. Seguru nago elkartearen kontura urtea amaitzerako mokadu goxoren bat jateko moduan izango garela aginagatar guztiok.



## SANTUENEA

JON ETXABE

### Errutina haustera

**B**izitzak errutinarantz bultzatzen gaitu, dena da beti bezala, berrikuntzarik ez. Aurten ere, abuztuaren ondoren iraila etorri da, ekaina edo uztaila beharrean! Eta hau horrela delarik, gure patua da errutinaren bizitzea. Helduak lanera, txikiak ikastolara... Azaleko udako euri epela aire girotuak lehortu du, eta kresalaren usain gazi-gozoa bulegoko "fresh breeze" ambientadoreak ordezkatu. Dena beti bezala, eta paradoxa bat lez, laino beltzek berean jarraitu ordez, eguzki handia ageri zaigu zeruan egun hauetan. Baina guk gurera jarraitu behar dugu, proiektu harekin edota testu iruzkinarekin. Hala ere, beti dago naturaren legeak hausten dituenak, eta horretan bi giza-talde dira iaioak: lehenik ezkongabeen agur festak. Esan beharra dago festa giroaren arlo hau asko potentziatu dela azkenaldian, herriko martxosoenak iada enparejatzeko garaian baitaude. Bestalde, tradizio moduan hasera hau eteten dugun santuenetarok. Oraindik ohitzeke gauden errutina hausteko San Queremosak gertu ditugu, iraileko hirugarren asteburua baitator lasaitasun hori irribarre eta algaraz zartatzera. Zer da ba errutina, hausterik ez badago?



## KALEBERRI

MADDI ZALDUA

### Usurbil, bai herri anitza!

**K**olore bakarreko herria ez dela ederki adierazi zuen Usurbilek, larunbatean. Arratsaldeko bostetan hasi eta iluntzera arte, jatorri ezberdinetako herritarren elkargune bihurtu zen herriko kaxkoa. Ongi etorri eta aurkezpen ekitaldi atsegin batekin eman zitzaion hasiera jaialdiari. Bertan izan ziren, besteak beste, Mertxe Aizpurua, Usurbilgo alkatea; Martin Garitano, Gipuzkoako Ahalduen Nagusia; eta herrialde ezberdinetako partaide ugari.

Hasiera ekitaldia amaituta, hainbat herrialdeetako jaki bereziak dastatzeko aukera ere izan zen; Kolonbiako, Nigeriako, Palestinako, Marokoko, Kubako, eta Euskal Herriko (besteak beste) zaporeekin goxatu zen arratsaldea. Erraldoiak ere atera ziren festa girotzera, eta berotu zizkieten ipurdiak buruhandiek, zirikan zebiltzan gazte-xoei.

Euskal eta Afrikar dantzak ere izan ziren ikusgai, eta "La Jodedera" musika taldearen "euskalkubatar" erritmoek eman zioten amaiera jaialdiari.

Ezin ahaztu, arratsalde osoan zehar, Sutegiko erakusketa aretoan SOS Arrazakeria taldeak antolatutako "Zurrumurruak deseraikitzen" erakusketa. Aniztasunaren aldeko jaialdi erakargarria.

Jarrai dezala Usurbilek herri anitza izaten!



## ZUBIETA

DENIS ELORTZA

### Oraina eta geroa

**I**kasturte berria martxa onean hasi da Zubietan. Eguraldi onaren laguntzarekin herriko plazak eta terrazak jendez jantzi dira eta herriaren bizitasuna jarri da berriz ere agerian. Bizitasun horren isla da auzolan deiar erantzun dioten herritarren kopuru handia, auzolana zertarako eta Donostiako Udalak sustatutako eskola txikiaren handitze lanei laguntzeko. Udala eta herritarrak elkarlanean, etorkizun hoberantz elkarrekin arraunean. Orain emanez geroa, hobetzeko.

Usurbilgo Udalak ere ikasturte berri honetan eman digu elkarlanean aritzeko aukera, Usurbilgo Plan Orokorra lantzen ari dira eta herritarren parte hartzeari leku egin diote. Herritar guztiok aukera izango dugu, Usurbilen eragin-eremuan behintzat, bi bileratan parte hartuz etorkizuneko Zubietan marrazteko. Orain geroa marrazten. Marraztu eta idatzi. Orain arte ni jardun naiz hemen Zubietako artikulutxoak idazten, eta Noaualri eskerrak eman nahi dizkiet aldizkariaren edukietan herritarroi ere parte hartzeko aukera ematea, baina iritsi da garaia lekukoa beste batzuei emateko. Zure esku dago Zubietako orainetik gerora egingo duen ibilbidea idatziz jasotzea, animatzen?



# Denboraldi biribila osatu du Sarai Lizasok

**F**aborito nagusiak ziren. Baina aldeak hain txikiak izanik, Zumaia, Hibaika edo Orio ere izan zitekeen garraile. Azkenean, aurreikuspenak bete ziren eta denboraldi osoan egindako lana berretsi zuten San Juan taldeak. Kontxako Bandera eskuratu duten nesken artean da Sarai Lizaso.

**Zer izan zen zailena, arraun egitea ala aste osoa zain egon behar izatea?**

Zain egotea izan zen gogorrena. Presio handia izan dugu komunikabideen aldetik, eta baita herrian ere, Pasaian. Baina ekipoan lasaitasun handia genuen. Denboraldia ondo osatua genuen eta Donostiako Bandera ere helburu bat izan arren, taldean lasai geunden.

**Denboraldi biribila egin duzue, Euskotren Liga irabazi eta Gipuzkoako txapelketa eskuratu duzue. Donostiako Banderan faboritoen artean zineten. Baina gauza bat da urte osoan erakutsitako maila eta beste gauza bat da Kontxako Banderan mailari eustea.**

Denboraldia ondo joan da, bandera asko irabazi ditugu, segundu gutxirekin baina beti gure alde. Kontxan maila hori mantentzen saiatu gara baina argi dago beste taldeek ere gora egin dutela eta azkenean denak oso paretsu ibili garea.

**Lehen igandean oso segundu gutxirengatik nagusitu zineten. Eta bigarren igandean, Zumaia nagusitu zitzaizuen. Baina bandera zuentzat izan da azkenean. Itsasoa nahikoa bare egon da, eta kaleekin gainera alde handirik ez da izan. Azkenean talde indartsuenak ibili gara aurrean.**

**Denboraldia biribila egin duzue. Nahiz eta Euskotren Ligak erregulartasuna neurtu, zapore ezberdina du Donostiako Banderan.**



Sarai Lizaso, etxekoekin batera, Kontxako Bandera inguruan dutela.

**SARAI LIZASO**  
**“Presio handia izan dugu, baina taldean lasaitasun handia genuen”**

**raren garaipenak, ezta?**

Bai, hala da. Gure entrenatzaileak dioen bezala, garrantzia handia du Kontxakoak, baina komunikabideek ematen diotelako garrantzia hori. Antolakuntzan ikusten da ezberdina dela. Lehen igandean arazoak izan genituen, lehen kaleetik gure ziaboga ez zen

ikusten, itsasontziak arraun eremuan sartuta zeudelako.

**Aurrera begira, antolakuntza aldetik gauzak hobetzea eskatuko zenuke, beraz.**

Hori mutiletan ez da gertatzen...

**Egiteko asko dagoen arren, zentzu horretan aurrerapauso batzuk eman dira.**

Egia da urte gutxitan pauso handiak eman ditugula. Ez dakit berdintasun egoera batera ailegatuko garen, baina ikusten da behintzat urtetik urtera

oihartzun handiagoa dugula. Eta telebistak laguntzen du horretan.

**Estropada amaitu eta berehala, oso hunkituta zeundeten arraunlari denak.**

Presio handia sentitzen genuen eta azkenean irabazle ginela jakin genuenean, lehertu egin ginen. Urte osoko entrenamenduez akordatzen zara, pasa ditugun gauza guztiekin, eta behin lanak amaitu ondoren, atera egiten dira emozioak.

**Sakrifizioa handia baita arrauna.**

Azaro hasieran hasi ginen entrenatzen, baina orain hilabete eta erdiz atsedean hartuko dugu.

**Nori eskaini nahiko zenioke garaipena?**

Beti ondoan egon direnei, gurasoak, familia, arraunean nirekin ibili den jende guztia, lagunak... Eta estropada bezperan lesionatu zen taldekideari. Entrenamendu asko sufritu ditugu berarekin.

**“Pauso bat eman nahi nuen arraun munduan, eta San Juanera joatea erabaki nuen”**

**San Juanen ari zara orain, baina lehen urratsak Orion eman zenuen. Zer dela eta joan zinen Pasaia aldera?**

Zortzi urte egin nituen Orion. Urte hasieran zalantza handiak zeuden, trainerua atera edo ez, gauzak ez zeuden argi. Nik pauso bat eman nahi nuen arraun munduan, eta San Juanera joatea erabaki nuen. Pasaian ikusten nuen lan ona ari zirela egiten, eta horren parte nahi nuen izan.

**Eta asmatu duzu.**

Bai, hala da. Hainbeste urtetako sakrifizioak bere emaitza eman du.



“Hainbeste urtetako sakrifizioak bere emaitza eman du”, hala adierazi digu Sarai.

# Espazio berriak, hezkuntza proiektu

Larunbatean 12:00etan inauguratuko dute Udarregi Ikastolako eraikin berria

**B**errikuntzetara ohitzen, egokitzen, baina pozik asko dira, Udarregi Ikastolako haur, guraso eta irakasleak, ireki berri duten eraikin berriarekin. Eraikina ederra da kanpotik, baina are ikusgarriagoa barrutik. Espazio berriak sortu dira, eta lehendik zeuden beste hainbat birmoldatu dituzte. Batzuk eta besteak, larunbat honetan eza-gutu ahalko dituzue. Inaugurazio ekitaldia antolatuko dute, eguerdiko 12:00etan.

Eraikin berrian kokatu dituzte, sukalde eta jangela zerbitzu berria. Orain arte ez bezala, aurrerantzean, ikastolan bertan sukaldatuko dute bazkaria, bertako eta garaiko produktu ekologikoekin. Jangela gainera, erabilera anitzeko espazioa izango da. "Jangela irekia egongo da ere, herriak edozein ekintza burutu nahi badu. Azkenean herriko ikastola bezala, instalakuntzak ere herriarentzat dira", ikastolatik gogorarazten dutenez.

Haur Hezkuntzako 3 urtekoen gela ere eraikin berrian dago. Baita irakasleen gelak, edota ingelerakoa ere. "Zerbitzuak nolabait Agerialdeko eraikinetik eraikin berrira ateratu. Gela berriak egin dira, lehen jangela zegoen tokian. Badirudi ez dela hainbeste ikasgela ateratu, baina espazioak hobetu dira", berri eman dute Udarregitik. Honez gain, atzeko plaza aldera ematen duen sarre-ara aterpe bihurtu dute.

## Berrantolaketak eraikinetan

Estalpeez ari garela, instalakuntza aldetik oraindik lanak egiteke badirela diote Udarregitik. Frontoia estaltzea dute, etorkizuneko erronken artean. Eta aurrerago, Haur Eskola ere nahiko lukete gerturatu, eta honenbestez, 0-16 hezkuntza eskaintza gune bakar batean biltzea. Ez baita ahaztu behar, proiektuaren abiapuntua dela hau, aurrera begira "ikastolak baditu asmo eta plan es-



"Jangela irekia egongo da ere, herriak edozein ekintza burutu nahi badu".

## **"Aurrerago, Haur Eskola ere nahiko lukete gerturatu, eta 0-16 hezkuntza eskaintza gune bakar batean eman"**

strategiko on bat".

HH-3koak eraikin berrian kokatu dira. Agerialden berrizatu diren espazio eraberrituetan HH 4 eta HH 5ekoak kokatu dira. Eta birmoldaketak izan dituen eraikin berean bilduko dira baita, LH ziklo osoko ikasleak. Honenbestez, Udarregiko eraikin gorrian DBH-ko ikasleak geratuko dira. Espazioa handitu den arren, ez pentsa ordea, lekua soberan dutenik. "Dena egongo da ondo aprobetxatua", adierazi dute ikastolatik. Agerialdeko eraikinean ere antzeko zerbait gertatuko da. HH3ko taldeak, eraikin berrira pasa direnez, libre geratu diren guneak ikastolak dituen beharrei erantzutera bideratu dira; "laborategirako, erabilera anitzeko liburutegi bat kokatzeko, ingeleseko geletarako".

Espazioari aprobetxamendu hobea ateratu nahi izan diote aldaketa guztiokin. Ditutuzten instalakuntzei etekin handiagoa ateratzea alegia.

## **Udalaren urteotako inbertsio handiena**

Ikastolan egin diren lanak diruz lagundu ditu Usurbilgo Udalak. Patioa birmoldatzeko lehenik, eraikin berrirako lur lagapena gero, bi urteotako aurrekontuetan argi islatu da Udalak ikastola laguntzeko izan duen borondatea. Urteotan egin duen inbertsiorik nagusia izan baita. Milioi erdi euro inguru bideratu dute guztira. "Beharrezkoa zela ikusten genuen, azken finean ikastola herritik sortu den proiektu bat da. Herrian dugun hezkuntza eredu ikastolak gauzatzen du. Udalaren aldetik, mantenuan eta gauzatze horretan laguntzea behar beharrezkoa dela uste dugu. Ez dugu ahaztu behar gainera, Usurbilgo ikastola erabat irekia dagoela edozein herritarrari, izaera publiko hori ikastolak bermatzen duela, herri eskola bat dugula", udal gobernu taldearen esanetan.

## **Eskertza**

Eraikin berriko lanek, orain arte zegoen espazioa berrantolatuko beharra eragin dute. Horretarako, auzolana sustatu du ikastolak. Eraikin berria ireki den honetan, orain arte laguntzen aritu direnei eskerrak helarazi nahi dizkiete Udarregi Ikastolatik. Modu berezian, gurasoei, Udalariei eta brigadako kideei. Behar izan dutenean, hor egon baitira beti, lanerako prest.

Ikasturte honetan auzolanerako deialdi gehiago izango direla iragarri dute Udarregitik, 2015ean Usurbilen ospatuko den Kilometroak jaialdiaren edota oraindik egiteke geratzen diren lanen harira. "4-5 urtekoen espazioetako egiturak amaitzeko daude. Gabonetako oporrak 4 urtekoenak egiteko baliatuko ditugu, 5 urtekoenak Aste Santuetan. Egiturak muntatu eta margotzeko gurasoen parte hartzea garrantzizkoa izango da. Jendea anima dadila", gonbidatu dute ikastolatik.

# berritzaile baterako

## Konfiantzaren pedagogia

Udarregi Ikastolako eraikin berria ez dute altxatu azpiegitura gabeziei erantzuteko soilik. Sortu diren gune berriak eta ondoko eraikin zahar- rrean egin dituzten berrikuntza lan eta espazio birmoldaketak, 0-6 urte artean hezkuntza proiektu berritzaile bat txertatzen hasteko baliatu nahi izan du Udarregik. Haurren osasun, emozio eta behar ebolutiboak egokiago erantzuteko dioten espazioak sortu dituzte Haur Hezkuntzan. "Ikasge- lak ez dira, ohituta gauden erakoak", nabarmentzen dute Udarregitik.

Espazioa haurrek dituzten beharrei hobeto erantzuteko egokitu dute. Lehen muga zena, orain hezteko aukera berri batean bihurtu dute. Orain arte, ikasturte bakoitzeko ikasleak bi edo hiru taldeetan, beste hainbeste geletan sakabana- tuak zeuden. Aurrerantzean ez. Urte bakoitzeko ikasle guztiak, jolaserako egitura hezigarriez hornituriko espazio zabal batean elkartuko dira. Eta gainera, elkar lotuak egongo dira HH 3, 4 eta 5eko espazioak. Haur bakoitzak dituen beharren arabera, ikasturte bateko txoko batetik besterako ibilbidea aldatu ahal du. Beharren arabera, espazio batean edo bestean egon ahal du, ikasle gazteago edo helduagoekin. Haurrak urte horietan egin dezakeen eboluzioari hobeto erantzun nahi zaio hartara. Horretan datza, "konfiantzaren pedagogia" deitzen diotena.

Eragina begi bistakoa izango da denborarekin. "Oso polita izango



**"Espazioa haurrek dituzten beharrei hobeto erantzuteko egokitu dituzte"**

da gero ikustea, adin ezberdinetako ikasleak nola elkartzen diren, nola elkarri laguntzen dioten", adierazi dute ikastolatik.

## Hormak hautsi beharra

Aldaketa handia eman du ikastolako Haur Hezkuntzan. Eta horretarako, hainbat horma hautsi behar izan dituzte. Adin bereko haurrak ohiko geletan zatitzen zituzten horma fisikoak hausteko erabakia ez zen erraza izan. Baina egun pozik asko daude bere garaian eginiko hautuarekin. Honez gain, bestelako hormak ere hautsi behar izan dituzte. Aldaketa handia eragin baitu proiektu berri honek, "orain arte beste modu batera ohitua zeuden" haur, irakasle eta familientzat. Aurrerantzean, espazio handiagoetan haur gehiago biltzeak, behaketa lan handiagoa eskatuko die, guneotan egongo diren hezitzaileei. Horrega-

tik, proiektu berria martxan jartzeko irakasleak formatu beharra izan dute. Eta beste erronka familiarik; eurekin harreman estuagoa izatea bilatzen dute.

Begi bistakoa da, aldaketa asko ekarri ditu eraikin berriak. Jorratzen ari diren bide berri honetan ordea, Udarregikoak ez daude bakarrik. Egitasmoa Mondragon Unibertsitateko HUEZI-koekin lantzen joan dira azken urteotan. Eta bide beretik, orain arte bezala, irakasle- leen formazioa sustatzen jarraituko dute. Ikasgeletan ere grabazioak egingo dituzte, egitasmo berri honen jarraipen bat egiteko. Honez gain, mintegiak ere antolatze- koak dira proiektu berri honen alde egin duten ikastetxeen artean. Udarregik martxan jarri berri duen arren, bada jada egitasmo hau indarrean ipini duen beste ikastetxerik; Arizmendi Arrasate inguruan, Arantzadi Ber-

garan edota Resurreccion Maria de Azkue Lekeition. Proiektu berritzaile hau hastapenetan da gaur egun. Etorbizunean beste etapetara zabaltzea dute helburu.

**Hobekuntzak ere jolas-parkera iritsi dira.**

## Larunbatean inaugurazioa

Irailaren 20an, eguerdiko 12:00etan Udarregi Ikastolako eraikin berrian. Besteak beste, instalakuntza berriak ezagutzeko aukera izango da inaugurazio ekitaldian. Pozarren, hitzordura gerturatzeko gonbita luzatu dute Udarregitik: "Urte osoa eraikuntza-lanetan pasa eta gero, 2014-15 ikasturtean eraikin berriaren ateak ireki ditugu, eta zuekin eta herritar guzti-ekin partekatu nahi dugu gure ilusio eta poza! Ez hutsik egin! Zuen zain gaudela!"

## Orioko Kilometroetan laguntzeko deia

Urriaren 5ean ospatuko da 2014ko Kilometroak jaia Orion. Egun horretan bertan hartuko du Udarregi Ikastolako Gipuzkoako 2015eko ikastolen jaia antolatze-ko lekua. Orioko Kilometroak ekimenera bueltatuz,

usurbildarren laguntza behar dute, urriaren 5ean, baita bezperatan ere, lan hauetarako:

- Ostiral gaueko (urriak 3) eta larunbat gaueko (urriak 4) guneen gaueko zaintza. 30 kide behar dira, 15 gau bakoitzeko.

- Kilometroak egunean Beldarteko eta Urbileko trafikoa bideratzen laguntzeko eskaera. Bi txanda, goizetik 14:00ak arte eta 14:00tik amaitu arte.

**Izena-emateko:** Bidali izen abi-

zenak, kontaktua (posta elektronikoa eta mugikorrekoren zenbakia ahal balitz) eta prest egiteko dauden txanda usurbilkilometroak@udarregi.com helbidera. Edo ikastolako idazkaritzara azaldu edota deitu 688 639 910 mugikorrera.

# aek

euskara praktikoa

30 urtean  
50.000 lagunek  
ikasi dute jadanik  
euskara gure  
100 euskaltegietan

## eman izena



### usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia,  
45 behea  
20170 USURBIL



Esperientzia. Metodologia. Gertutasuna. Modulazioak. Efikazia.



Eskolak



Mintza  
praktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio  
planak



Titulu  
homologatuak

### aek

Garena ikasteko  
para entendemos  
pour se comprendre

607 609 379

usurbil@aec.org



# “Argiazaleok merezi dugu ospakizun egun bat”



Argiako erredakzioko hainbat kide, tartean zuzendari lanetan ari den Estitxu Eizagirre.

**B**i hamarkadako etenaldiaren ondoren aurten berriz ospatuko da Argia Eguna, irailaren 27an Usurbilen. 1982an egin zen lehen aldiz, astekaria herritarrengana hurbiltzeko eta euskal prentsaren beharra aldarrikatzeko. “Oso bestelako garaian eta asmoz bertuta helduko diogu erronkari, baina 80ko hamarkadako Argia Egunen xede berarekin: gure proiektu komunikatiboa herritarrekin konpartitzea”. Estitxu Eizagirre Argiako zuzendariak eman dizkigu festaren inguruko xehetasun gehiago.

**Garai batean ospatzen zen Argia Eguna. Gero eten egin zen. Zergatik berpiztu duzue festa hura?** Argiaren inguruan gabiltzanak, langileak, laguntzaileak, irakurleak... merezi dugu ospakizun egun bat. Elkartu eta harreman zuzenak bultzatu nahi ditugu. Eta festa giroan, Argiaren proiektua gizarteratut bide batez.

Zorionez, Euskal Herrian jende euskaldun asko dago, baina badira Argia ezagutzen ez dutenak, edo bere garaian ezagutu zuten baina gaur egunean dagoenik ere ez dakitenak. Gure asmo nagusia da kalera atera eta gizarteratzea Argian egiten den lana, eta bide batez, harreman zuzenak bultzatzea.

## Festa giroa batean, beti ere.

